

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2799

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 17koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, mahastia berregituratu eta birmoldatzeko laguntzei dagozkien errenta-galeraren ondoriozko konpentsazioen zenbatekoak espezifikatu eta ezagutzera ematen dituena, 2022. urterako eta Euskal Autonomia Erkidegoko jatorrizko deitura bakoitzerako.

Otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketetarako Europako laguntza-neurria garatu eta aplikatzeko araudia ezarri du.

Dekretu horren 10.2 artikuluan, mahastia berregituratu eta birmoldatzeko eragiketetan parte hartzen duten pertsonak konpentsatzeko laguntza bat ezartzen da, plan hori aplikatzeak eragindako diru-sarreraren galerak konpentsatzeko. Konpentsazioa berregituratu edo birmoldatutako lursaila kokatuta dagoen lurralde historikoko kalitatezko ardoaren eremuan azken hiru kanpainetan mahastak izan duen batez besteko balioaren % 25ekoa izango da.

Foru-aldundiek edo jatorrizko deituren kontseilu arautzaileek emandako datuetan oinarriturik Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak prestatutako txostenak aztertu dira, eta, otsailaren 26ko 26/2019 Dekretuaren 10.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ebazpen honen bidez espezifikatu eta ezagutzera ematen dira mahastia berregituratu eta birmoldatzeko laguntzei dagozkien errenta-galeraren ondoriozko konpentsazioen zenbatekoak, 2022. urterako eta Euskal Autonomia Erkidegoko jatorri-deitura bakoitzerako direnak.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2022. urterako eta Euskal Autonomia Erkidegoko jatorrizko deitura bakoitzerako, honako hauek izango dira mahastia berregituratu eta birmoldatzeko laguntzei dagozkien errenta-galeraren ondoriozko konpentsazioen zenbatekoak:

- Errioxa JDK: 1.107,14 euro/ha.
- Arabako txakolina / Txakoli de Álava / Chacolí de Álava JD: 1.485,04 euro/ha.
- Bizkaiko txakolina / Txakoli de Bizkaia / Chacolí de Bizkaia JD: 2.164,54 euro/ha.
- Getariko txakolina / Txakoli de Getaria / Chacolí de Getaria JD: 2.941,67 euro/ha.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Nekazaritzako, Arrantzako era Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 17a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
JORGE GARBISU BUESA.